

12 pertsona izan dira auziperatuak Castejongo CAF-Trenasan burututako ekintza batengatik

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 18/05/2024

Ekintza honek enpresak jokatzeko duen papera Palestinako kolonizazioan seinalatzea zuen xede eta azupetuei elkartasuna adierazteko kontzentrazioa deitu du Palestinarekin Elkartasunak.

Urtarrilaren 25ean, Palestinarekin Elkartasuna plataformak egindako mobilizazio batean, Castejongo CAF-Trenasak entitate sionistaren kolonizazioan parte hartzen ari dela salatu zuten, izan ere, enpresa honek tranbide sare bat eraikitzen ari da okupatutako lurraldeetan, zeintzuk Jerusalem eta kolonia sionistak lotuko dituzte. Palestinarekin Elkartasuna plataformak salatu duenez proiektu honekin palestinarrei "beren lurrak kentzen dizkiete eta bere etxe eta herrietatik" botatzen dituzte. Honi jarraipena emanez "Israelen esiztentzia horrelako kolobarazioak ahalbidetzen dituztela" esan dute, "mendebaldeko enpresa eta instituzioen babesa izango ez balu ezingo luke aurrera jarraitu" gehituz.

Egun horretan hamabi kide identifikatuak izan ziren, horietako bi kazetariak. Gertakari hauen harira Palestinaren aldeko elkartasunaren kriminalizazioa salatu du plataformak agerraldi baten bidez, eta jakitera eman duenez, identifikatutako hamabi pertsonak maiatzaren 21ean goizeko 10:00etatik aurrera aitortzera deitu dituzte ikertu gisa Tuterara, kalte delituen presuntziopean. Hori salatzeke Tuterako auziteguietan konzentrazio bat deitu dute, egun eta ordu berdinean.

<https://eh.lahaine.org/12-pertsona-izan-dira-auziperatuak>